

GEFANGEN

Ander Segarra Lazkano

Bilbo

Frantzian desbideratuta,
ez dakit zehazki non;
euriak gainean punpa,
ez nuke nahi hemen egon.
Lokatza galtzerdietaraino,
uniforme birrinduarekin;
ninetan soilik laino,
doi da ezer ikusgai argi honekin.
Jesarri naiz zuhamuaren izterretan,
babesturik al nago?
Mihia, jateko irrikitan;
gorputza, berriz, gero ta ahulago.
Odola airean oxigeno lez,
zerua baitago oskorri;
ezinezkoa da dena tamalez;
eman hobena frantximant horri.
Astiak aurrera egin ahala,
ni oraindik arbolapean.
Esan dizuedan bezala,
Dena dago kontrolpean.
Urdinkara gizakiak, azeriak!

Pittinka besteen beta ostuz,
erdiesten dute bizitza ernariak,
beraien egoa gizenduz.
Ene etnia oinkatzen ari dira,
zigorra egun ta eguzkirako.
Zer dugu ba tudeskoek? Tira,
gerla ez da deuserako.
Verduneko bataila.
Lehergailuen zapartak.
Soldadu ororen akabaila,
berantaro albatrosen atxamartak.
Gudalburu Zuckerberg,
komandante Dorsey, Page ta Brin;
sasikume kaikuak dira halaber,
urdeen gisa egiten dute kurrin.
Jaurtigaiak, metxadun dinamita,
balaz jositako metrailadore ugari...
like botoiak, milaka Afrodita;
jaramonik ez iragarkiari!
Idazti bisaia, instant gramoak.
Ba al da berririk edo?
Sozialki hetsita dauden ahoak,
koltana isiotuz gero.
Lubaki mugatutik nabil nare,
besteen arruntasunean murgildurik;
izartegitik jaurtitako sare;
ahaztu dut, ez dit axola. Ni kikildurik!
Xinaurriak xinaurrien aurka,
tarteaz gizakia so;
honek garondoraino nauka,
ez naiz ba bere preso.

No man's land bada norbaitena,
han ezin baitezaket arnastu ere.
Frankizia batena izatea da litekeena,
hortaz inor ez da norbere.
Oraindik naiz zuhaitzarena,
ez daukat nire barnean nahiko botere.
Agertzen dabilta hosto more, urdin,
laranjadun arbolak, arbolak, arbolak...